

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EUSKARA KULTURA ETA KIROL SAILA

**Huts baten zuzenketa 3065 iragarkian (2016ko abuztuaren 24ko 94 zenbakiko ALHAO): diputatu nagusiaren 243/2016 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa, onartzen duena helduen euskalduntzea sustatzeko xedez lehiaketa bidez emango diren 2016-2017 ikasturterako dirulaguntzen deialdia**

Huts bat hauteman da 2016ko abuztuaren 24ko 94 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen Arabako Foru Aldundiaren 3065 iragarkian: diputatu nagusiaren 243/2016 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa, onartzen duena helduen euskalduntzea sustatzeko xedez lehiaketa bidez emango diren 2016-2017 ikasturterako dirulaguntzen deialdia. Horregatik, dagokion zuzenketa egin behar da, zehazki 10. oinarriaren euskarazko testuan:

hau dioen lekuan,

Hamargarrena. Dirulaguntzak ordaintzea

“Nola eta laguntza matrikularen zenbatekoari aplikatuko zaion deskontu bat den, euskaltegiak ordainduko ditu dirulaguntzak, ikastetxe bakoitzean matrikulatutako pertsona onuradunen kopuruaren arabera”

hau esan behar du:

Hamargarrena. Dirulaguntzak ordaintzea

“Nola eta laguntza matrikularen zenbatekoari aplikatuko zaion deskontu bat den, euskaltegiei ordainduko zaizkie dirulaguntzak, ikastegi bakoitzean matrikulatutako onuradunen kopuruaren arabera”

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 20a

*Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren burua*  
**DANIEL MARTÍNEZ MONGE**